


MATEMATIKA ARIKETA. – 4.MAILA.

UDAL POLIKIROLDEGIA

Aitorren herrian udal polikiroldegi berria eraiki dute.



1 Aitorrek lorategi bat ikusi du, eta lorategiaren diseinua geoplano batean erreproduzitu du.



Geoplanoko laukiaren alde bakoitza 10 m luze baldin bada, zein izango da lorategiaren perimetroa?

- A. 160 m
- B. 200 m
- C. 220 m
- D. 240 m

2 Igerilekuaren forma aztertu

eta hurrengo baieztapenak

EGIAZKOAK

ala

GEZURREZKOAK

diren



adierazi:

Baieztapena	EGIA	GEZURRA
A. Lau erpin ditu.		
B. Laukizuzen forma du.		
C. Lau angelu berdin ditu.		
D. Lau aldeak berdinak ditu.		

3 Udal kiroldegian kirola egiten duten umeen datuak ondorengoak dira:

ADINA	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16
Mutilak	14	18	21	24	27	35	38	40	29	27	30	35
Neskak	12	15	17	14	15	21	36	28	31	30	26	30
Ikasleak GUZTIRA	26	33	38	38	42	56	74	68	60	57	56	65

Zenbat 14 urteko neskek egiten dute kirola polikiroldegian?

- A. 14 neska.
- B. 27 neska.
- C. 30 neska.
- D. 57 neska.

4 9 urteko 42 kirolariak txangora joan dira eta 294 € ordaindu dute guztien artean.

Zenbat diru ordaindu du kirolari bakoitzak?

Aukeratu problema ebazten duen eragiketa.

- A. 294×42
- B. $294 : 42$
- C. $294 - 42$
- D. $294 + 42$